

Proposamenaren egile edo egileen izen abizenak, espezialitate, fakultate eta unibertsitatea adieraziz.

Hernández, Amaia. Psikologia. UPV/EHU; Eskudero, Itziar. Erizaintza. UPV/EHU; Balanzategi, Gilen. Arkitektura. UPV/EHU; Echenique, Estitxu. Kimika. UPV/EHU; Eceiza, Xabier. Informatika. UPV/EHU; Etxaniz, Joseba. Enpresen administrazio eta zuzendaritza. UPV/EHU; Ibarzabal, Maddi. Zuzenbidea. UPV/EHU; Morcillo, Héctor. Ingeniaritza mekanikoa. UPV/EHU

Kontakturako datuak:

Mella, Jovita. Telf: 943 01 84 22 . Emaila: gazte.ikd@gmail.com

Posterraren izenburua:

IKD GAZtE: Gizartea eta ikasleen artean zubiak eraikiz.

Gaitasuna, estrategia edo ekintza diseinatu edo martxan jarri deneko gradu/posgradu, fakultate eta unibertsitatea.

IKD GAZtE (SAE/HELAZ), Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/ UPV).

Lanaren laburpena

IKD GAZtE: GIZARTEA ETA IKASLEEN ARTEAN ZUBIAK ERAIKIZ

IKD GAZtE proiektua 2011/2012 ikasturtean jaiotako egitasmoa da, UPV/EHUko gradu ezberdinetako ikasleek autogestionatzen dutena errektoreordetza ezberdinen babesarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketarekin. Helburu nagusia ikasleriaren ahalduntzea eta ekimen sena sustatzea da, hau da, ikasleria bere ikaskuntza prozesuaren protagonista izatea. Proiektuaren lehen urtean, ikasleriaren beharren inguruko diagnostiko bat burutu zen Gipuzkoako Campusean eta emaitzek ikaskuntza ereduan unibertsitate eta gizarte arteko lotura sendotu beharra zegoela erakutsi zuten. Ikasleek haien ikasketak konpromiso sozialarekin uztartzeko guneak sortu behar zirela adierazi zuten, besteak beste.

Behar horiei erantzuteko asmoz diseinatu zen ikasleriari zuzenduta dagoen “*Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua*”. Modulua sorrerak ordu-arte ezarrita zegoen heziketa eskaintzaren aurrean aukera berri bat aurkeztu zuen, konpetentzien garapenean zuelako oinarria, eta ez soilik, ezagutzak barneratzean.

Moduluan parte hartzen duten ikasleek izaera sozialeko proiektu batean lan egin dute irabazi-asmorik gabeko elkarte batekin elkarlanean. Horrela, proiektu erreal batean parte hartzean ikasleriak jendarte behar bati erantzuna ematen dio, ideia errealitate bilakatzen duen zerbitzu saio bat eskaintzera iristeraino. Konpromiso soziala aintzat hartuta unibertsitatea gizartearekin harremanetan jartzen lortzen da.

Ikasle hauek haien burua auto-gestionatzen eta diziplina desberdinetako ikasleekin lan egiten ikasten dute. Horrela, erabakiak hartzeko gaitasuna, ekimen sena, sormena, parte hartzea, gaitasun sozial eta zibikoak, autonomia, gatazken ebazpena, frustrazioarekiko tolerantzia, enpatia, proaktibitatea eta talde-antolakuntza bezalako zeharkako gaitasunen garapena eskuratzea lortzen dute.

Konpetentzia horien garapena aztertzeko IKD GAZtEk diseinatutako ebaluazio tresna desberdinak erabiltzen dira. Erabiltzen diren tresnen artean errubrikak eta Likert eskalak gailentzen dira. Horrez gain, moduluaren funtzionamendua eta jarraipena bideratzeko irizpideen araberrako taulak ere betetzen dira egunero. Eta bukatzeko, ikasleriaren gaitasun kritikoa indartzeko asmoz, autoebaluazioan oinarritzen den pretest-postet tresna pasatzen da, prozesu hasierako eta amaierako ikaskuntza esperientzia islatzen duena.

Esperientzia hau berri eta deigarri bilakatzen da batez ere moduluak dituen bi ezaugarriengatik:

- 1) **Autogestioa.** Ikasle taldeak aukeratzen du bere lan antolaketa nolakoa izanen den. Prozesu hori bideratzen laguntzeko dinamizatzailleak laguntza dute. Dinamizatzailleak IKD GAZtE proiektu globala koordinatzen duten ikasleak dira, funtzio horretarako bereziki formatutako ikasleak.
- 2) **Transdiziplinartatea.** Ikasleek gradu desberdinetako beste ikasleekin lan eginez alor desberdinetako ezagutzak partekatzen dituzte eta horrek gizarte beharra duen erronkari ematen zaion erantzuna era integral eta anitz baten lanketatik bideratzea dakar.

Moduluan bi metodologia aplikatzen dira nagusiki:

- 1) **Ikaskuntza-Zerbitzuaren (IZ)** helburua gizartean sortzen diren behar sozialak asetzera bideratuak dauden proiektu errealetan parte hartuz errealitateko arazoak konpontzea da. Horregatik, moduluan parte hartuz ikasleek proiektu erreal batean barneratzen dira eta komunitateari zerbitzu erabilgarri bat ematen diote.
- 2) **Design Thinkingek** ideietan dauka iturburua. Ideia horietatik eta erabiltzaileekiko begirada enpatiko batetik, ikasleek prototipoak eraikitzen dituzte, hau da, proiektu proposamen ezberdinak egiten dituzte. Metodologia honen oinarrian hasierako prototipoaren moldaketa prozesuak daude. Horrenbestez, modulua prozesu jarraitua da eta etengabe ikasleriaren lanaren birmoldaketa eta hobekuntza eskatzen du.

Aurten moduluaren IV. edizioan aurkitzen gara eta urtez urte geroz eta gradu, ikasle eta gizarte eragile gehiago inplikatzeko dira, aurten Gipuzkoako Campuseko zentro guztiak inplikaturik daudelarik unibertsitatea eta jendartearen arteko zubiak eraikitzeke asmoarekin.

Proposamena bideratuta dagoen gai atala:

III. Hezkuntza berrikuntza konpromiso sozialaren gaitasunean: berrikuntza eta irakaskuntza-zerbitzu esperientziak garapenerako lankidetzak, kultura sustapena, genero berdintasuna, integritatea, jasangarritasuna, deontologia profesionala eta bazterketa sozialaren aurkako borrokariak.